

**NORTASUN AGIRIA**  
**MARTIN UGALDE**

1927  
Andoainen jaio zen azaroaren  
11n, San Martin egunez.



**FAMILIA.** Amaren aldeko fami-  
liarekin. Eskuinean  
aitaren ondoan dagoena hiru  
urteko Martin bikia da.



1947  
Amarekin batera Venezuelara  
doa aita eta anaiaren bila.

1960-62  
Kazetaritza ikasketak egiten  
ditu Chicagon.

1961  
Euskarazko lehenengo liburua  
argitaratzen du, *litzaiak*.

1982  
Euskara Arazoetarako  
Zuzendari Eusko Jaurlaritzan.

1990  
Euskaldunon Egunkariaren  
Administrazio Kontseiluarren  
lehendakari izendatu zuten.



**FAMILIA.** Anamari  
emaztearekin 1979an. Zurichen  
ezkundu ziren 1955ean. Hiru  
seme-alaba izan dituzte.



Jakin eta Euskalgintza  
Elkartean Fundazioak  
argitaratutako Martin  
Ugalde liburutzik  
hartutako argazkiak.

**EGUNKARIA.** Joan Mari  
Torrealdei eta Joxemi  
Zumalabe ondoan  
zituela 1990ean.



MIKEL CASAL

### Ezagutzen nuelakoan

**JOAN MARI TORREALDAI**

Martin Ugaldéren literatura venezue-  
larraren aie bat edo beste ezagutzen  
nuen. Euskaraz idatzitako ipuinak,  
gehientxoanak, ezagutzen nituen.  
Gozatuz informatua nintzen ordurako  
bere Euskal Herriko historiarekin.

Atseginéz deskubrituak nituen zen-  
bait pertsonaia berari esker: Txillida,  
Barandiaran, Ibarrola, Arrupe, Sota.  
*Zeruko Argian* idazien *etx-Deia* egun-  
karian idazteaz gainera zuzendari lan-  
tan ere ikusia nuen. Eusko Jaurlarit-  
zan euskararen arduradun zegoenean  
berarekin egona ere banintzen.

Ezagutzen nuen, hortaz.  
Bada ez, gero konturatu naiz ezetz.  
Ezagutu, benetan ezagutu. 90eko  
hamarkadan ezagutu dut Martin, *Eus-  
kaldunon Egunkariako* abenturan.  
Bere aldamenean ibiltzeko zoriona izan  
dugunoi asko erakutsi digu Martinek.  
Martinen egiazko tamaina orduan eza-  
gutu dugu: bera baino 20, 30, 40 urte  
gazteagoekin parez pare lanean, eus-  
kaldunen aurreiritzi eta eszeptizismo-  
ari aurre egiten, agintari eta politiko  
askoren kontrairitziaren gainetik fin  
jokatzen. Sekulako kategoria eta segu-  
rantzia erakutsi zigun. Are gehiago eza-  
gutzeko aukera eta zortea izan dut,  
geroztik. Elkarrizketa luze baten hari-  
ra, bere bizitza-hustu zidan Martinek.  
Andoainen hasi eta Caracasekik barre-  
na Hondarribian gaur arteko bizitza  
osoa. Ez bi hitz, liburua osoa behar da  
Martin ezagutzeko eta zer-nolakoan den  
adierazteko.

### MARTINEK BERE BURUAZ:

“ Ni gerrari esker  
mundua ezagutu  
nuen mutil koskorra  
naiz. Idazle izan nahi  
eta idazle den bat;  
arazo askorekin baina  
horixe egin nahi  
duena, idatzi»

### MARTXELO OTAMENDI: Egunkariako zuzendaria

“ Txikitan Martin  
Laborde fabrikari  
aritu zen aprendiz  
gisa. Labordek brokaf  
egiten zituen eta  
Andoaingo lantegirik  
garrantzitsuena zen.  
Handik hirurogei  
urtera edifizio hartan  
bertan kokatu zen  
*Egunkariaren*  
erredakzioa eta bertara  
itzuli zen, baina ez  
aprendiz gisa,  
presidente  
moduan baizik»

### Begiak zabalik dituena

**ARANTXA URRETABIZKAIA**

Zahartzaroan funtsezko gauzekin gel-  
ditu dela dio idazleak eta badirudi hori-  
xe bera egin duela bere gorpuz lirai-  
nak. Batez ere buruak.

Balio ez duena kendu, busto bat edo  
txanponetako sosalariak hobereana lor-  
tu arte.

Urdin ilunez jantzerik goitik behera,  
edozein edadeko gizonak hain gustu-  
ra janzen dituzten panazko galtzak eta  
jerlseia, txukun eta dotore. Zaindua.  
Ordenatua, munduaren beste aldetik  
ekarri zituen gutun eta paperak beza-  
laxe, ordenatua.

Esken keinuak bezalaxe. Izter gai-  
nean uzten ditu luzaroan, lozorroan  
baleude bezala.

Eta halako batean, agindu ezkutu-  
ren bati erantzunez edo, hegan hasten  
dira, hitzekin nahastu arte. Ez luzaro-  
an, ordea, Martinek indarrak alferrik  
galdu behar ez direla adierazi nahi balu  
bezala.